


# Prentsa oharra

## Nota de prensa



The screenshot shows the official website of Donostia San Sebastián. At the top, there is a navigation bar with links for 'Mapas', 'Oferta de Empleo', 'Trámites', and 'Buzón de la ciudadanía'. Below this is a secondary navigation bar with 'Home', 'Oficina virtual', 'Ciudad', 'Ayuntamiento', and 'Turismo'. The main content area features a large banner for 'Afaro de las playas de San Sebastián' which is circled in red. To the right of the banner is a section for 'Información útil de la ciudad' featuring the Mayor, Eneko Goia. Below the banner are sections for 'Avisos' (notices) and 'Noticias' (news). The 'Avisos' section includes information about beach closures and public transport. The 'Noticias' section features several articles with images and headlines, such as 'Dbus, nuestro compromiso es contigo', 'El 28 de junio volverá el mercadillo dominical de Anoeta', 'El Ayuntamiento realojará en Morlans a los vecinos de tres números de la calle Amara', 'El 26 de junio se reactivan los servicios búho de Dbus', and 'Dos campañas dinamizarán el turismo este verano en San Sebastián'. On the right side of the page, there is a vertical menu with various services and information links, including 'COVID-19', 'Udalinfo', 'Webs / Redes sociales', 'Elecciones Vascas', 'Programa de gobierno', 'Donostia 2030', 'Donostia Kalean', 'Donostia Transport', and 'OTA'.

## Udalaren webguneak eta Aldundiko aplikazioak hondartzen egoeraren berri ematen dute

Donostiako Udalaren web orrian, [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus), udan hondartzak erabiltzeko behar den informazio guztia jasotzen duen banner bat dago.

Marisol Garmendia Hiri Proiektuetako zinegotziak adierazi duenez, "Guztion artean jakina da osasun krisiak eguneroko ohitura guztiak aldatu dituela. Hondartzek euren denboraldi ofiziala uztailaren 1ean hasiko duten arren, duela egun batzuetatik eta eguzki egunak aprobetxatuz, jende asko joaten da gure hondartzetara gozatzerara".

Joan den ekainaren 15etik, hondartzetako erabiltzaileek sorospen-zerbitzua eta beste zerbitzu batzuk dituzte, hala nola sarbideak kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzu berezia, hondartzainen eta banderatzoen bidez, koloreen bidez hondartzen edukiera edo itsasgoraren hurbiltasuna jakinarazteko.

"Dagoeneko, donostiarrek eta gure hondartzetara hurbiltzen direnek tresna berri bat dute, Aldundiak Gipuzkoako kostalde osorako martxan jarri duen aplikazioaren osagarri", adierazi du Marisol Garmendiak.

# Prentsa oharra


## Nota de prensa

Udalaren webgunearen bidez, hondartzei buruzko informazioa eskura daiteke, edo esteka hauen bidez:

[ww.donostia.eus/hondartzenedukiera](http://ww.donostia.eus/hondartzenedukiera)

[ww.donostia.eus/aforoplaya](http://ww.donostia.eus/aforoplaya)

"Esteka horretan Donostiako hondartzei dagozkien lau irudi agertzen dira: Kontxari dagozkion bi, Ondarretari dagokion bat eta Zurriolako hondartzari dagokion beste bat. Irudiak, denbora errealean 10.00etatik hasiko dira, Donostiako badian estrategikoki jarritako kamerek eskaintzen dituzte", nabarmendu du Garmendiak.



Donostiako hondartzetako edukiera

Itsasbehera: 01:52/14:05    Itsasgora: 08:04/20:23    Data: 25/06/2020

Hondartza	Okupazio baxua	DUELA
Kontxa 1. gunea	Okupazio baxua (+2h)	0 MINUTU
Kontxa 2. gunea	Okupazio baxua (+2h)	0 MINUTU
Ondarreta	Okupazio baxua (+2h)	1 MINUTU
Zurriola	Okupazio baxua (+2h)	30 MINUTU

App-a deskargatu


DESKARGATU / DESCARGA Google Play    DESKARGATU / DESCARGA App Store

Ganberak okupazio-mailaren berri eman dute denbora errealean, eta hurrengo bi orduetarako okupazio-aurreikuspena egin dute. "semaforo" batek adierazten du hondartza bakoitzean berde, orban edo gorri, hondartzan sar daitekeen ala ez, eta une bakoitzean gogorarazten du itsasgora baino bi ordu lehenago eta handik bi ordura arte Kontxara ez sartzeko gomendioa dela.

"Gehiago ikusi" aukeran klik egitean, hautatutako hondartzari buruzko xehetasun guztiak biltzen dituen orrialde batera sartzeko da, bainurako uraren tenperaturatik, itsasaldien ordutegitik, itsas banderetatik, erabilgarri dauden zerbitzuetatik, hondartzen garbiketarik eta zenbait aholkuetatik ", azpimarratu du zinegotzi sozialistak.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



The screenshot shows the website interface for 'Kontxa 1. gunea'. It includes a navigation bar with 'Turismoa' selected, a search bar, and a main content area with a map, a table of water quality indicators, and service icons.

Lagina zer puntutan hartua den	Bainatzeko uraren osasun kalitatea	Bainatzeko osasun baldintzak	Hondartzen osasun eta trukuntasun baldintzak	
Loretope	Bikaina	Bainu librea	Ona	
<b>Kontxa</b>	Erdia	Bikaina	Bainu librea	Ona
Nautikoa	Bikaina	Bainu librea	Ona	

Hondartzen edukiera gomendatutako distantzia sozialaren eta hondartza bakoitzaren azaleraren arabera ezarri da, mareen arabera. Erabiltzaile guztiak doan kontsultatu ahal izango dute hareatzen okupazio-maila, bertara joan aurretik.

"Hondartzen erabiltzaile bakoitzaren esku dago, bere erantzukizun pertsonala eta kolektiboa da, segurtasun-distantziari eustea, higiene-neurriak eta kutsadurei aurrea hartzea, baita hondartzetan ere", adierazi du Garmendiak. "Baliabide teknikoak eta giza baliabideak jarri ditugu, udaleko webgunetik eta app-tik, hondartzetan banderak jartzea, megafonia bidezko mezuak, sarrerak eta irteerak mugatzea, hondartzainak, hondartzen denboraldi ezohiko eta ezohiko hau kudeatzeko... orain gutako bakoitzari dagokigu erantzukizunez eta zuhurtziaz jokatzea".

Laburbilduz, hondartzen erabilera COVID19k sortutako pandemiaren aurkako beharrezko prebentzio-neurriekin bateragarri egiteko informazio guztia ahalik eta zehatzen eskaini nahi da.

\* **"NIK HONDARTZAK"** APPa DESKARGA DAITEKE DENBORA ERREALEAN DONOSTIAKO ETA GIPUZKOAKO HONDARTZEN EGOERA EZAGUTZEKO